

## **CANVAS EREDUA**

### **Diru-sarrerak**

Gure enpresaren diru-sarreraren iturria gure bezeroen alokairuekin bildutako guztia izango da. Bezeroek gure webgunean erregistratzeko aukera dute, eta, horrela, % 10eko deskontua izango dute lehen eskaeran. Eskaera honen ondoren, ez dute prezio beherapenik izango, enpresak ez du egun berezirik izango, ezta Black Friday ere. Horrela hilabete guztietan diru-sarrera berdina izango dira (+-).

Enpresa sortzean diru asko inbertitu behar bada ere, gabonetako denboraldiak inbertitutako diru hori berreskuratzeko behar dugun guztia eman diezaguke. Gainera, gure webguneko prezio eta zerbitzuekin irabaziak izango ditugu hasierako dirua berreskuratu ondoren.